

Ramón Zallo Elguezábal

**Abertzaletasun hiritar
eta sozialaren alde**

Euskal auzia, abertzaletasuna eta ezkerra



Euskal auzia, abertzaletasuna eta ezkerra

Ramón Zallo Elguezábal

Abertzaletasun hiritar eta sozialaren alde

EDUKIAK

3 AURKEZPENA *Xabier Anza*

5 EUSKAL AUZIA, NAZIONALISMOA ETA EZKERRA *Ramón Zallo*

- 5 1. Nazioa eta Estaturik gabeko nazioak
- 8 2. Nazionalismoak neurtzeko kana ezberdinak
- 9 3. Auzi nazionalen gaurkotasuna
- 11 4. Estatu espainiarra
 - 11 4.1. Estatuaren egituraketa eztabaidan
 - 12 4.2. Ideia nazionala
 - 13 4.3. Kultura amankomuna
 - 14 4.4. Nazio berrien oldea
- 16 5. Ezker tradizionalaren mitoak eta auzi nazionalak
 - 17 5.1. Nazionalismoa eta internazionalismoa
 - 17 5.2. Desberdintasunak onartu
 - 17 5.3. Espazioak
 - 18 5.4. Gizakiaren araberako boterea
 - 18 5.5. Autodeterminazioa
 - 18 5.6. Gizartearen eta nazioaren auziak, maila ezberdinetan
- 19 6. Alderdi nazionala eta alderdi soziala
- 20 7. Euskal nazioa berriro taxutu

22 BIBLIOGRAFIA

Barrainkua 13, 6º • 48009 BILBO
☎ 94 - 4037799
Fax: 94 - 4037766
fundazioa@elasind.org



**3. Dokumentua,
2001.eko martxo**

Aurkezpena

Xabier Anza

Dokumentu honetan -aurtengo hirugarrena- MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUarentzat berariaz egindako lan bat jaso dugu. Horren egilea, Ramon Zallo, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Katedraduna da. ELAko militantziak aspaldiko ezaguna du idazle eta pentsalari oparo hau. Beraren hitzaldi, artikulu eta liburuak ezinbesteko ekarpena dira, unibertsitateko irakaskuntza alorrean ez ezik, euskal ikuspegi politiko eta sozialerako ere.

1997an "*Euskadi o la segunda transición*" izenburuko liburua eman zuen argitara. Bertan, euskal gatazka politikoari buruzko hausnarketa sakona egiten du euskal pentsamolde abertzale eta progresista berreratzeari begira, eta oraindik egiteke dauden atazak seinalatzen ditu bertan. Erreferentziazko obra da oraindik ere.

1998an, Manu Robles-Arangiz Fundazioak "*Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*" izenburuaz argitaratutako liburuaren koordinatzaile lanak egin zituen unibertsitateko beste hiru irakaslerekin batera. Berak garatutako atalburuan kultur identitatearen eta identitate politikoaren arteko lotura estua (ezberdinak izanik ere) aztertzen zuen. Gure herriko ideologia eta sentiberatasun guztiek konpartitu behar dituzten jardunbide edo arauak definitzeko zailtasuna ikusita, proposamen bikoitz hau egiten zuen bere azterlanean: lehenik, euskal identitate kulturalaren kontzeptu zabala proposatzen zuen, identitatea eta jarauntsitako kultura loturik agertzen dituen dimentsio bakarreko definizioa gaindituz; eta bigarrenik, euskal herritar guztiek eraiki beharreko paradigma, kultur eta komunikazio esparru propio eta eraginkorra, alegia.

Zallok gai horien gainera gogoeta egiten segitu du geroago ere eta beraren hainbat iritzi artikulu argitaratu da eguneroko prentsan eta aldizkari

espezializatueta. Azken hiletan, polemika tentsu bezain interesgarri batean hartu du parte *El Viejo Topo* aldizkarian (Nuñez eta Santamaria idazleekin). Zintzotasunez, argitasunez eta militante senez, nazionalismoak, oro har, eta euskal nazionalismoak bereziki, jasan behar dituen bi akusazio tipiko eta topiko desmuntatu egin ditu, guk uste, doitasun osoz: nazionalismoaren eta "balkanizazioaren" arteko identifikazioaz, eta nazionalismoa aurrerakuntzaren, klase batasunaren eta internazionalismoaren kalterako ideologia kontserbadore gisa aurkezteari buruzkoa.

Artikulu luze eta hasiera-hasieratik trinko honetan aspaldiko eta oraintsuko eztabaidak bildu ditu, nazionalismoaren aurkako aurreiritziak eraitsiz eta itxura unibertsalista, solidario eta kosmopolitaz agertu nahi duten ezkutuko nazionalismoak agerian utziz.

Lanaren amaieran ondoko proposamena egiten du: *"nazionalismo erromantiko eta etnokratikoen garaia (XIX. mendea) iraganda, gizabidezko nazionalismo eta eduki sozialeko komunitarismo irekien garaian gaude (XXI. mendea); horiek behar bezala bideratu behar dituzte bai benetako elebitasuneranzko kultur normalkuntza, epe luzera, bai nazionalitateetako herritarren erabaki eskubidea"*.

Apustu horren alde gaude guztiz. Zeregin sindikalekin eta langileriaren patuarekin uztarturiko erakundea garen aldetik, bat gatoz kohesio maila nabaria (birbanaketari eta aukera berdintasunari begira) eta gizarte inplikazio handia (behetik gorako demokrazia bermatzeko) sustatzen dituzten diskurtso eta praktika nazionalekin.

Azterlan hau, bere zehaztasun eta aberastasunagatik, oso lagungarria izan daiteke, gure iritziz, euskal nazionalismoak edo, hobeto esateko, euskal nazionalismoek (denetik baitago), gehiago itxaron gabe, garatu behar dituzten eztabaidetan. Horregatik, zinez eskertzen diogu Ramon Zallori ekarpen garrantzitsu hau, ELAko militanteentzat oso baliagarria izango delakoan gaude eta.

Bilbon, 2001eko otsailaren 26an

Euskal auzia, abertzaletasuna eta ezkerria

Ramón Zallo Elguezábal
EHU-UPVko katedraduna

Europar, mende eta erdi baino luzarago, "auzi nazionalak" gogoeta zio izan dira bai proiektu ideologiko ugariarentzat (bereziki, ezkerrekoentat), bai kultur antropologia, soziologia espezifikoko (bereziki, kultur soziologia eta nazionalismoaren soziologia) edo politologiarentzat (batez ere, nazio eta Estatu zahar zein berrien sorrerari eta eraldaketei buruzko azterlanak). Hala ere, hain konplexuak diren arazo horiek arintasun handiz ebatzi ohi dira gaur egun, balkanizazioarekin identifikatuz. Horrela, orokortu egiten da kasu zehatz bat, Estatu gisa finkaturik ez dauden nazionalismo guztien ezaugarri bihurtuz. Beste batzuetan, klaseen arteko gatazken argitasuna lantzen duen gai artifizieltzat jotzen dira.

Gaurko gizarteetan identitateak, kultur gatazka, hizkuntzen arazoa, mundu globalizatu honetako lurraldeen eta subiranotasunen perfila eta funtsezkoak diren beste gai batzuk ez lirateke gai artifizieltzat jo behar, ez euren kulturaren

zein gizartearen patuaz kezkatutik dauden ehun milioika pertsonetako begiruneagatik, ez indar politiko progresistek arazo errealei derrigorrez eman behar dieten erantzunagatik. Argi dago beste arazo anitz daudena, horiek bezain garrantzitsuak edo are garrantzitsuagoak, hala nola txirotasuna, migrazio oldeak, herrialdeen arteko berdintasuna, gizarte sektoreen artekoa edo generoen artekoa, planetaren kudeaketa ekologikoa edo eskubide demokratikoak. Globalizazioak berak erresistentzi aukera asko agertzen ditu, planetako berdintasuna, demokrazia edo identitate gutxietsien onspena helburu, eta aukera horiek ez dute zertan bateraezin izan. Aitzitik, oso lotura estua dute hainbat kontutan.

1. Nazioa eta Estaturik gabeko nazioak


Nazioa ez da subjektuengandik edo borondateetatik bereiz dagoen zerbait.

Eraikuntza historikoa eta subjektiboa da, modernizazio prozesuan aurkitu den "asmakari" interesatua -ez du halabeharrez gainerako ideologia edo mundu-ikusmoldeak baino okerragoa izan behar-, berari eutsiko dioten erreferentziazko kultur helburu batzuk behar dituen beti. Eta, jakina, garrantzi politiko handia du.

Antzinako Erregimenean (Iraultza Burgesak baino lehenago) Boterearen eta menpekoen artean indarrean zegoen leialtasun sistema ordeztu duen harreman eredu berriak Nazio kontzeptua -erreferentzia erkide gisa- eta herritartasun kontzeptua hartu zituen abiapuntu. Gauzak horrela, elkarri aurkaturiko mugimendu eta elite batzuek garapen ekonomikoa zuzentzea lortu nahi zuten, bai eta, horretarako, agintaritzak eta sistema politikoa esparru geografiko jakin batean eta herritarrengan islatzen diren ideologia eta kultura legitimagarrien gainean formalizatu ere.

Jakina, nazioa nazionalismoaren eta borondate politiko kolektibo esanguratsu baten emaitza da, baina inondik ere ez geure buruaren engainu. Errepublikako nazionalismoetan -Estaturik gabeko nazioen nazionalismoak kasu- arazo nazionala aurreko gestio edo dominazio egitura, bide demokratikoak nahiz egitateak erabiliz, ordeztu nahi duen subjektu politiko kolektiboaren agerpenaren emaitza da, nazionalismoak sustaturikoa. Sustatzen ez badu, ez da ez mugimendurik, ez arazo nazionalik izango.

Hala ere, komeni da kultur identitatea eta identitate politikoa bereiztea. Kultur identitatea -kultur kidesun eta ezberdintasun sena- funtsezko eragile subjektiboa da sozietate



modernoen perfilean eta portaera zein gatazketan. Geu, komunitate garen aldetik, eta Besteak bereizten dituen pertzepzioa da. Eta, agidanez, autopertzepzioa, nor bere buruarena eta besteena, ez da ez egiazkoa, ez faltsua. Bada, besterik gabe. Eta, noski, bateragarria daaskatasun eta eskubide unibertsalak defendatzen dituen unibertsalismoarekin, bizimodu kolektibo zehatz batzuen unibertsalizazioa aldarrikatu gabe¹.

Hala eta guztiz ere, kultur identitate nabaria duten komunitate gutxi batzuk baino ez dira bokazio nazionalako identitate politiko berezia duten komunitate bihurtzen. Ekintza kolektiboaren eroaleek -alderdi edo korronteek- helburu politiko bat lortzeko xedez antolaturiko gizartearen borondatea da kultur edo etnia maska bereziak dituen komunitate bat egitate sozial eta politiko gisako proiektu nazional bilakarazten duena. Inguruabar horiek nazionalismo arrakastatsuek, elite buruzagiek eta masa

1. Hedatzeko bokazioa duten kultura dominatzaileek, amerikarra edo espainiarra kasu, hori egiteko joera agertzen dute. Sarriegi, ustezko unibertsalismo kosmopolita izaten da kultura dominatzaileen bokazio espansionista eta zibilizatzailea ezkatzen duen Troiako zaldia.

mugimenduek bat egiten dutenean gertatzen dira.

Nazionalismoak, artifiziozkoa ez den ideologia gisa, zilegi du bere agerpen soziala gertakari komunitario mota bereizgarri batzuetan, edo nagusitasun zein menpetasun eta errepresio fenomeno politikoetan. Nazio eraikuntzaren galdapenak gizarteko sektore esanguratsu batzuek indarrean dagoen lurralde eta administrazio egitura politikoarekiko sentitzen duten poztasunik eza izan ohi du oinarri, edo norberaren kultura inposatu zaion beste batetik defendatzeko asmoa, edo Estatu berean dauden eta erabakimen politikoa izan nahi duten herrialdeetako biztanlerien arteko harreman lasai nahiz tentsuak.

Badira “Estaturik gabeko nazio” batzuk –ez dago kontraesanik, berbei dagokienez– beste Estatu edo Estatu mota bat eraikitzeke proiektua dutenak, Estatu jakin baten aurka. Dena den, erabateko aldea dago Nazio Estatuaren eta Estaturik gabeko nazioen artean. Nazio Estatuetakoa identitate dominatzaileak natur paisaiaren atal izan ohi dira; ez dira kolokan jartzen, identitate asebetekak dira, arazorik gabe garatzen direlako –instantzia sozial, soziokultural eta politiko-administratiboaren eta komunikazio eta hezkuntza sistemen arteko funtzionaltasunaren bidez– eta ez dute zertan aldarrikatu. Egitate onesgarriak dira. Estaturik gabeko nazioek, ordea, ez dute berrelikadura-koadrorik; horiek pentsamolde alternatiboaz eta limurtzeko gaitasunaz baliatu behar dute, konkista gisa planteatu, eta bere ahalein zati bat ere

galdu nahi ez duen botere ezarriarekiko gatazka saihestezinerako prestatu.

Eratutako nazio bateko nazionalistek edo nazionaliek naturaltasun osoz eta gauza bera bailiran bizitzen dituzten arren, bereizi egin behar dira identitate kulturala –kultura ezberdina izatearen kontzientzia-, nazio kulturala, –kultur eskubide indibidual eta kolektiboak dituen komunitate ezberdina izatearen pertzepzioa– eta nazio politikoa, Estatuduna nahiz Estatu gabekoa - autogobernu eskubidea lortu nahia-, zeinaren defentsak herritartasun nazionalaren aldeko identitate politikoa ematen baitu.

Kultur identitate mota batzuk identitate politiko bihurtzen dira. Hori orokortasunez gertatu ohi da Estatu gisa eraturiko nazioetan –Suedian, adibidez, kulturalki suediar izatea eta Suediako herritar izatea gauza bera balira bezala sumatzen dira–. Aitzitik, Estaturik gabeko nazioetan, bi identitate horiek garapen ezberdinak izaten dituzte biztanleri sektoreen arabera. Gainera, komenigarria da horiek bereiztea, kultur alderdi erkideak inork manipula ez dituzan aukera politiko bakar bati loturik aurkeztuz. Horrek oso ondorio kaltegarriak ekarri ohi dizkio bertako kulturari (politizazio manipulagarria edo kulturaren beraren aurkako erasoak).

2. Nazionalismoak neurtzeko kana ezberdinak

Ezin onar daiteke neurtzeko kana ezberdinak erabiltzerik. Estaturik gabeko nazioen nazionalismo periferikoei

irrazionaltasun, esentzialismo metafisiko, eskusibismo etnizista, elkartasunik eza eta beste hainbat maska eratxekitzen zaizkie. Hala ere, ez dira irizpide berberak erabiltzen XVIII. mendearen amaieran edo XIX. ean Estatuak eratu zituzten nazioak (Alemania, Italia) edo nazio bihurtu ziren Estatuak (Amerikako Estatu Batuak, Frantzia, Espainia) epaitzeko. Nazio arrakastatsuen eraikuntza lortu zuten ideologiak –nazio handien nazionalismoak–, kultur identitate dominatzailetik nazio kulturalera eta, horretatik, nazio politikora eta Estatu nazionalerako ibilbide historikoa edo alderantzizkoa egin zutenak, historiaren dekantazio –dramatiko, heroiko nahiz mitiko– soiltzat hartu ohi dira.

Nazionalismo errebindikatiboak “demokraziarentzat eta ezkerreko balioentzat benetako mehatxua” direlako funtsezko axioma gisa aurkeztea –sarritan egin ohi dena– funtsik gabeko aurreiritzi hutsala da, izan ere, ez dago bi nazionalismo berdin, eta haien izaera aurrerakoi edo atzerakoia, beraien ideologia zehatz, bilakaera, estrategia eta toki politiko eta sozialaren arabera da. Badira nazionalismo erreakzionarioak eta progresistak; faxistak, kontserbadoreak eta antiinperialistak; eskuinekoak, zentrokoak eta ezkerrekoak; bakezaleak eta armatuak. Ez da zentzuzkoa guztiak pakete berean sartzea.

Espainiako estatuari dagokionez, nazionalismo periferiko gehienek, sistema demokratikoaren atal izateaz gain, men egiten diete haren arau eta balioei eta,

beraren egitura kuestionatzean, lagundu egiten dute botereen deskontzentrazioa areagotzen. Mugimendu horiek, Nazio Estatuaren antolakuntzazko egitura ontzat ematen ez dutenez, euren zaintzapean jartzen dituzten asmo autoritario edo zentralistak eta horrek, sarritan, ezker klasikoekiko aliantzak egitera eraman ditu, adibidez Espainiako gerra zibilean.

Era berean, ideologia guztiak -batez ere ezkerrekoak- berrikuste prozesuan ari direlarik, ez da ulergarria zergatik ezin duten eskuineko, zentroko nahiz ezkerreko nazionalismoek euren kontraesanak leundu eta gai anitzei eskuineko, zentroko nahiz ezkerreko ikuspegi eguneratuz ekin. Beren botoa alderdi errebindikatibo nazionalistei ematen dieten herritarrak ez dira nazioz mozkortzen eta bizimodu politiko zein sozialeko arazoak alde batera uzten. Osoko programak ere exijitzen dizkiete alderdiei.

3. Auzi nazionalen gaurkotasuna

Gaur egun hainbat inguruabarrek eragiten dute Estatu Espainiarreko identitateen arazoaren gaurkotasun nabaria.

Lehen-lehenik Estatu Espainiarraren barne itxuraketa historikoari loturiko faktoreei erreparatu behar zaie. Estatu espainiarreko komunitate berezien berezko garapen politikorako azken aukerak XIX. mendearen amaieran lurperatutzat jo dituztenek adierazitakoaren kontra, haiek protagonismoa lortzeko ekinean aritu ziren –pil-pilean zebiltzan langile klaseekin batera– XX. mendeko lehenengo urteetan eta funtsezko eragile bihurtu ziren 30eko

hamarkadan, estatutuen gaineko eztabaidetan, eta 60 eta 70eko hamarkadetan, frankismoaren aurkako borrokan.

70eko hamarkadaren bigarren erdian, nazionalitateen auzia Estatu eredu berriari buruzko eztabaida eta tentsioen erdigunea izan zen, baina gaitz osatu zen Trantsizioaz. Garai hartan, jatorri frankistako Armadaren jagoletzak makina bat kezka eta beldur ekarri zuen, baina gaur egun, jadanik, ezin da aitzakia hori erabili. 80 eta 90eko hamarkadetan, aldarrikapen zio izaten segitu du eta, borroka sindikalarekin batera, agenda politikoen atal garrantzitsuena da, nahiz eta indarkeria politikoa, bereziki Euskal Herrian, oso nabarmenki zirriborratzen duen.


Identitateen arazoa gailenarazten duen bigarren zioa mundu globalizatua eratzten ari den modua da: mundu bakarra bailitzan –kapitalismo bakarra- eta hiru ardatz dituen –AEB, EB eta Japonia/Korea, horietan amerikar inperioa nagusi delarik.

Euren identitatean murgiltzera beharturik sentitzen diren gizarteetan globalizazioari, hiperkomunikazioari eta kultur klonazio masiboari erantzuteko konpentsazio bitartekoak sortarazten dira. Horrexen ondorio dira bai sustrai judu-kristauko eredu zibilizatzailea ez diren tradizio filosofiko eta erlijiosoen birbalioztatzea –budismoa, islamismoa-, bai komunitate naturalen kultur identitateek berreskuratu duten indarra. Komunitate horietako batzuek, Estaturik gabeko nazioek, kolokan

jartzen dituzte Nazio Estatuaren mapa eta horren oinarri demokratikoak.

Kultura batzuek nazioz gaindiko kulturarekiko nozitzen duten babesgabetasunak, nazio kulturalak eta nazio politikoak bat ez etortzeak eta herritarrarengandik hurbileko gestioa garatu nahiak berriro ekarri dute sozialtasunaren (gizabanakoa-herritarra-komunitatea-klasea) eta lurraldearen eta boterearen arteko erlazioaren erreferentzia nagusiei buruzko gatazka. Are gehiago: defentsarako nazionalismoak arlo horietan ematen diren erantzunez elikatzen dira. Horien sustraiak egonkorak dira, mehatxupean dauden edo eraikitzekeo trabak dituzten kulturak direlako, edo nazio politiko bihurtzeko prozesua burutu ezin izan duten kultur nazioen egonezinagatik, batez ere kapitalismoak ekarritako informazio garapenaren garai honetan (Castells 1988).

Horrek ez du, inondik ere, esan nahi identitatearen defentsarako adierazpen guztiak ontzat hartu behar direnik. Identitateen garapenetik bertatik zaindu behar da horiek tribalizaziorantz jo edo fluxu planetarioen aurkako aterpe bilaka ez



Nazionalismo errebindikatiboak “demokraziarentzat eta ezkerreko balioentzat benetako mehatxua” direlako funtsezko axioma gisa aurkeztea funtsik gabeko aurreiritzi hutsala da

daitezen. Identitate ireki gisa garatu behar dira.

Hirugarrenik, estatueta mugen eta guneen erlatibizazioa dugu identitateen auziaren gaurkotasunaren zioetako beste bat. Horrek mugimendu bikoitza du: batetik, goranzkoa, Estatuaren funtzionaltasuna ahultzearen ondoriozkoa –estatu gaitzaren instantzien aldekoa, horiek hartzen baitituzte haien eskumenetako asko, batez ere ekonomikoak, militarrik eta nazioartekoak–; eta bestetik, beheranzkoa –herritarrengandik hurbilago dauden instantzia eraginkor, ordezkagarri, kontrolagarri eta eguneroko elkartasun-sortzaileen aldekoa–. Bi fenomeno horiek ez dira alternatiboak, aldi berekoak eta elkarren osagarriak baizik.

Hortaz, alde batetik, nazio gaitzaren batasun ekonomikoek –EB kasu- ordeztu dituzte potentzia handien arteko borroka odoltsuak. Horren eraginez, Estatu nazionalen subiranotasuna higatu egiten da eta, ondorioz, identitate eta espazio krisia dator. Dena den, ez dugu fenomeno hori lasaigarritzat hartu behar, horrek burutu egin dezakeelako Estatu bakoitzaren barruan herritarren boterea jasaten ari den usurpazioa. Are gehiago, erabakigune garrantzitsuenen desnazionalizazioa, herritarren onura bilatu baino, enpresa talde handien mesedetan egiten ari da, horiek euren negozioak nazioartera hedatzeko politika ekonomiko baliagarri bat behar baitute.

Beste alde batetik, gestio-unitate politiko txiki eta gizakoiagoetara hurbiltzearen

aldeko presio soziala da nazio txikien nazionalismoaren eta erregionalismoaren oinarrietako bat. Era berean, gerraostean eratutako mapa -batez ere Ekialdean- kolokan jarri izanak lehenago erdi-lurpean zeuden auzi nazionalak azaleratu ditu nazioarteko agenda politikora, bai eta Mendebaldean ere -horra hor Quebec, Ipar Irlanda edo Estatu espainiarra-. Herrialde eta egituren internazionalizazio hazkorrak aldarrikapen nazionalak zaharkiturik uzten dituela esaten dutenen kontra, giro egokia dago isolaturik geratu nahi ez duten Estatu gabeko nazioen nazionalismoentzat.

Beraz, aipatu bi fenomenoek ez dituzte nazionalismo periferikoak kolokan jartzen, Nazio Estatu tradizionala eta Estatuaren nazionalismo handia baizik, batez ere historikoki euren burua nazioz osaturiko nazioentzat hartu nahi izan ez duten nazio anitzeko Estatu.

4. Estatu espainiarra

Estatu espainiarrean, Estaturik gabeko nazioen arazoa ez datza eskumenetan –kontua ez da eskumen gehiago edo gutxiago izatea–, sistema politikoari eusten dion subjektuan eta kontzeptuan baizik.

Auzi horri lau ikuspegitatik begira dakiok: gutxiengo nazionalen nazionalismo periferikoen zilegitasunetik; historiatik; patriotismo konstituzional espainiarraren mugetatik; eta nazioarteko joeretatik.

4.1 Estatuaren egituraketa eztabaidan

Estatuaren barruko gutxiengo nazionalen nazionalismoen berezitasuna, hain zuzen

ere, Estatuaren lurralde eta antolakuntza egituraren auzia agerraraztea da. Eta, hori baino lehen, subiranotasun subjektuaren auzia eta gehiengoak eta gutxiengoak zenbatzeko erreferentzia den lurralde eremuarena ere, hori funtsezkoa baita joko politikoaren arauak onartu ahal izateko. Arazo politikoa egon badago, euskaldun, galego, katalan edo kanariarren sektore zabal batek hala sentitzen duelako, gehiengoa izan zein ez. Ez ona, ez txarra ez den subjektibotasun horrek historian ditu bere oinarri objektiboak eta proiektuen eroalearena egiten duten alderdi politikoen ideologien, esperientzien eta sinesgarritasunaren bitartez gorpuzten da.

Gainera, ezin da esan une batean -onetsiz, halaberrez ala amore emanez- ebatzi zenak betiko balio duenik. Izan ere, gatazka duten gizarteetan, denboraren igaroaz, higatu egin ohi da elkarbizitzarako ezarritako markoen zilegitasuna edo onespina. Eta herri helduek tutorerik behar ez dutenez, ezein arrazoi demokratikok ez du justifikatzen, adibidez, duela 20 urte baino gehiago, egoera oso bestelakoa zela, onartu genuen lege zein instituzio esparrua, kontsulta bidez, berrikusteko eragozpena. Horretarako, nahikoa da gizarte aitzindaritzaren duen sektore batek esparru haren mugez ohartarazi izana.

Jakina, nazionalismo edo soberanismoek statu quoaren erdiguneko elementu bat jartzen dute kolokan. Hortixe dator komunitate bateko gehiengo batek Konstituzioa mugitu egin behar dela, edo Estatuak jadanik asetzen ez duela, edo

dagoeneko gune hori (Estatutuarena) gustuko elkargunea ez dela, berraztertu egin behar dela eta kontratu berria egin beharko litzatekeela dioenean Estatuak agertzen duen izua, hutsa baino ez ikustearena, alegia.

Independentzia bera baino, kontratu mota berria da jokoan dagoena, hau da, herrien arteko elkarbizitza lankidetzaren mota ezberdinen arabera antolatzeko aukera, betiere subjektua, Euskadi, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek edo Nafarroako gehiengo batek hala nahi badu, subiranoa dela onetsirik. Subirano izatea neure subiranotasuna noraino konpartitu nahi dudan erabakitzean datza.

Agidanez, kultur eraikuntzari dagokionez ere badugu arazorik. Baina gure arazoa ez da etnikoa -ez gara elkarren aurka dabilten eta euren arazoak demokratikoki ezin ebatz ditzaketen bi kultur komunitate-, politikoa baizik, funtsean; arazo demokratikoa, Estatu espainiarraren egitura berriro definitu beharra, hain zuzen ere. Botere faktikoen mehatxuek eta esperientzia politikorik ezak mugaturiko Trantsizio hartatik jaio zen Estatu berria eratu zenean, auzia berariaz jaso zen xedapen gehigarrietan. Ez dago engainurik, ez ustekaberik, gaur berriro planteatu nahi horretan.

4.2 *Idea nazionala*

Batzuek ahaztu egin ohi dute historia, edo euren gustura moldaturik berridazten dute. Baten batek uste duenez, frankismoak identitate nazional espainiarraren definizio inperiala ezarri izanaren ondoriozko

Kontratu mota berria da jokoan dagoena, hau da, herrien arteko elkarbizitza lankidetzaren mota ezberdinen arabera antolatzeko aukera

sinbolorik ezak eragin du 70eko hamarkadatik aurrera auzi nazionalak azaleratu izana, baina ahaztu egiten du auziok are aspaldikoagoak direla. Gainera, frankismoak, bere politika uniformatzaileaz, atzerapen ikaragarria eragin zion nazionalitateen kulturen garapenari eta soilik geroago, erreakzio kolektibo gisa, sortu zen erantzunaren premia, hasieran, gutxiengo batek bakarrik bultzatuta.

Badago ere XIX. mendeko nazionalismo espainiarrari ideologia progresistako gehiengoa esleitzen dionik: "Hasta la Dictadura de Primo de Rivera (1923-30) el eje de dominancia del nacionalismo español se expresa en clave liberal republicana, laica y progresista, con un programa regeneracionista de modernización, (..) simbolizado en la figura de Manuel Azaña"² .



Gutziz alderantzizkoa izan zen, izan ere XIX. eta XX. mendeetan zehar -non aldi progresistak salbuespenezko tarteak izan baitziren- eskuin kontserbadorearen nagusitasunaren isla izan zen beti. Historia horiek esan bezala suertatu balitz, ziurrenik ez zen auzi nazionalik izango, Manuel jauna nazionalismo periferikoen hain etsai izanik ere, nolabaiteko egokitzapena egiteko bezain adimentsua ere bazelako.

Edonola ere, XIX. mendean asmo uniformista eta zentralistetan bat etorri ziren eskuin monarkikoak, liberal erreakzionarioak eta liberal progresistak. Modelo politikoaz eta dinastia arazoez gain, Foruen eginkizuna ulertu ez izana ere -euskal liberal progresista gutxi batzuek bakarrik ulertu zuten, foruzaletasun liberalaren ideologiaren bidez- egon zen hiru karlistaden oinarrian eta euskaldunen memoria historikoan ezarririk geratu dira garaituek halabeharrez men egin beharrekoak izan ziren bake nekeza haiek.

Bai, Espainiaren handitasuna aldarrikatzen duen ideologia parafaxista ez zen 30eko hamarkadara arte formulatu; baina horrek ez du esan nahi nazionalismo espainiar baztergarria askoz lehenago azaldu ez zenik, horren adierazpen politikoa agerikoa baitzen jadanik XIX. mendearen hasieran. Har dezagun horren adibide 1812ko Konstituzioa -"La Pepa" zeritzana-.

Nazio espainiarraren ideia -Euskadi eta Katalunian askoz ahulagoa izan zena- Austriakoen dinastiaren garaian azaleratu zen (XVIII. mendean), Estatuaren

eraikuntzarekin batera, baina nazio integratu eta integratzaile gisa itxuratuko zuen Estatu nazionalik gabe segitu behar izan zuen epealdi luze batez (1808-1840) (ikus Fusi 2000). XIX. mendea etengabeko porrota izan zen (industrializazioa, koloniak, Estatu egonkorra, modernizazioa) eta horrek berarekiko lehian hasten ziren beste nazionalismo batzuk agerrarazi zituen, beste fenomeno batzuen artean.

Federalismoa ideologia berankorra izan zen, gutxiengo batek bakarrik bultzatua eta gutxi praktikatua, bai eta sektore progresistetan ere. Mende hasieran jadanik, nazionalismoarekiko borrokan, ahaztu egin zen modelo federala eta Estatu uniformearen defendatzeari ekin zioten.

Argi dago lehen euskal nazionalismoa ere, Sabino Aranarena³, ez zela progresista jai. Erreakzionarioa eta integrista izan zela esan ohi da -eta ni bat nator-, baina gutxietsi ohi da berak egin zuen eta denboran iraun duen ekarpena -euskal nazioaren ideia proiektu gisa formulatzea- eta, aldiz, gehiegi balioztatzen da beraren dotrinaren alderdirik errefusagarriena, berak sortu zuen alderdiak berak laster baztertu zuena, gainera.

4. 3 Kultura amankomuna

Kultura erkide bat dagoelako ideia da patriotismo konstituzional espainiarraren abiapuntua: kultura hori gaztelaua/espainiarra da eta berak

funtsatzen du nazio espainiarra, nazioen nazio gisa pentsatu ere egiten ez dena. Haren argudiorik pisutsuena gaztelaniaren nagusitasuna da, historia halabeharrezko patu erkidea bailitzan interpretatuz -Canovasengandik jarauntsitako moldeak eta Ortegaren erro teorikoak erabiliz-. Haren instituzio subiranoak komunitateek pentsa dezaketenaren gainetik daude, horiek osotasun baten ataltzat hartzen baitira. Horrek aukera guztiak kentzen dizkie gainerako komunitateei nazio kultural izatetik nazio politikoa izaterako jauzia egiteko, nazio politikoa espainiarraren derrigorrezko zaingopera uztartzen dituelarik. Ikuspuntu horrek demokrazia kontzeptuarekin berarekin aurkitzen ditu bateraezintasunak.

Teorian, identitatezko patriotismo espainiarrak ez zuen beste kulturak menperatu eta haiekiko gatazkan hasi beharrik. Estatu erkidea dela, nazio erkidea dela eta identitateetako bat (hizkuntza, historia, instituzioak eta literatura, bereziki gaztelauak) identitate erkidea dela baieztatzean hasi du gatazka, gainerako identitate guztiak bigarren mailakotzat, baina ez erkidetzat, hartzen dituelarik.

Nazionalismo edo patriotismo espainiar konstituzionalik ohikoenak ez du onartzen bere nazionalismo politikoa -biguna zein gogorra izan- aukera kultural batean eta aspaldidanik datorren ezarpen politikoan

3. Sabino Aranaren euskal nazionalismoa, zalantzarik gabe, xenofobia izan zen, baina,aldi berean, erromantiko eta moderno ere, eta ez du inolako zerikusirik erro errepublikarreko nazio handian (XIX.eko Frantzia inbasorean) edo Alemaniako Volkean nahiz hibrido espainiarrean inspiraturiko modeloan oinarritzen diren nazionalismo inperialista arriskutsuekin; ez eta, esan beharrik ere ez dago, nazien, falangisten edo Maurras, Donoso edo Maeztu bezalako ultraeskuindarren nazionalismoarekin ere.

oinarritzen denik. Horregatik, ez du trabarik ikusten Nazio espainiarrak bertan egon nahi ez duten milioika biztanleak barne harturik imajinatzeko.

Egia esan, patriotismo konstituzional espainiarrari identitate asebate, bideragarri eta dominatzaile batek, gaztelauak/espainiarrak, eusten dio. Identitate horrek ere, jakina, kultur identitate hutsetik komunitate politiko baten identitatezko oinarri izan arteko ibilbide historikoa egin behar izan zuen. Baina elite hegemonikoek –euskar oligarkia barne- hori modu baztergarrian gerta zedin nahi izan zuten, hots, gaztelaua ez ziren gainerako kultur identitateak menperatuz eta alboratuz. XIX. mendearen hasieran jadanik uko egin zitzaion elkargunea ekar zezakeen modelo federalari eta, horrela, bertan behera geratu zen beste identitateek –erreal bezain asegabeek- autogestio politikorantz egin zezaketen bidaia historikoa.

Estatu espainiarrean, demokrazian sakontzeko –horixe baita edozein herrialde, bere herritartasuna garatzeari begira, artezten duen jatorrizko espiritu konstituzionala-, ezinbestekoa da hala eskatzen duten nazionalitate historiko eta agertu berriei euren askatasuna nola eta norekin bizi nahi duten demokratikoki galdetzea. Ala gai honetan, eta soilik gai honetan, herritartasunaren aurretik jarri behar ote da indarrean dagoen Estatu eredu?

4. 4 Nazio berrien oldea

Nazioen eraketaren lehenengo txandan (XVIII. eta XIX. mendeetan, Britainia Handian izan ezik, hor lehenago gertatu baitzen) komunitate batzuek euren kulturak finkatu, batu eta garatu zituzten, beste batzuk suntsituz edo baztertuz, eta euren identitatearen esparru eztabaidaekin legez eratu zituzten euren sistema politikoak, euren maska soziokulturalak bideratu eta zuzenduko zituztenak. European edo Amerikan ezagutu ditugun Nazio Estatuak, gaur egun nahiko higaturik agertzen direnak, Estatuak, dominatzaile izaera esleitutako kulturaren batean oinarriturik, Nazioa asmatzen zueneko lehen olde haren garapena dira (kasu bakarren batean baino ez zen alderantziz gertatu).

Herrialde horientzat ataza are errazagoa izan zen XX. mendeko nazio eraketen bigarren oldeko herrialdeentzat baino; horiek, “Hirugarren Munduko” herrialdeek, batez ere Asia eta Afrikakoek, 50eko hamarkadako deskolonizazio sakonaren ondorioz eta munduak hazkunde handiko garaia bizi zuela, etnia ezberdinak batu behar izan zituzten eta ekonomiaren zaintzapeko askatasun esparru batean jardun.

Hirugarren oldea berandu dator, ekonomi egoerak arazo asko agertzen dituelarik. Oso era asaldatuan jazotzen ari da, Nazio anitzeko Estatuaren inplosioen ondorioz (SESB, Balkanak...), identitatea berresteko jarrerak eraginda (Islameko herrialde batzuk...) edo XIX. mendean ezin ebatzi izan ziren eta euren aukera nahi duten auzi

nazional gisa (Irlanda, Estatu espainiarreko nazionalitate historikoak).

Gaur egun, bere identitate nazional eta kulturala babestu eta garatzeko Estatu motaren bat eraikitzekotan dabilzan komunitateek (euskal komunitatea kasu) oso bide latza dute aurrean.

Lehenik eta behin, globalizazioaren eraginez Nazio Estatu ahalsuek eurek ere (Frantzia, Alemania, Italia, Espainia...) nozitzen dituzten arazo larriak –ekonomikoak, finantzazkoak, politikoak, erabakimenari dagozkionak...– guztiz pairatzen dituztelako haiek ere, baina ahalsuek euren burua defendatzeko erabil ditzaketen baliabideak izan gabe.

Bigarrenik, berankortasunagatik, garai honetan ugariagoak direlako mehatxuak aukerak baino. Izan ere, komunitate horietako bakoitzak bere kolektibotasuna, bere identitatea (kultur identitatea identitate nazional konpartitua eta errespetatua bihurtu), bere erreferentziatzko kultur sistema, bere komunikazio sistema, bere botere koadroak, bere baitako azpikomunitateen eta klaseen elkarbizitzarako giltzak, beste herrialde batzuekiko bere harremanak, bere ekonomia, bere mitoak, historian duen tokiari buruzko bere interpretazioa eta beste hainbat gauza eraiki behar dituen une honetan, herrialde handiak, euren arlo publikoa eta euren komunitate, gizarte eta politika sistemak jadanik eraturik eta sendotasunez bermaturik dituztenak, informazioaren gizartearen eta ekonomia globalaren beharkizunei aurre egiten dabilta.

Kultura nazionalen dimentsio politikoa lortzeko aurrebaldintza subjektiboa, berriro diot, gero eta herritar gehiagok hala ikustea da. Subiranotasuna, berba zaharkitua barik, mito bizi eta garrantzitsua da, bai edozein Estaturentzat (horra hor Estatuak estatuarenak ez diren organismoekin konpartitzeari jartzen dizkion trabak), bai edozein nazionalitaterentzat (nahiz eta hein batean beste batzuei lagatzeko izan). Aldaketa ugari jazo badaiteke ere –subiranotasuna nazioz gairik entitateei lagatzea edo eskumenak estatupeko instituzioen artean banatzea– subiranotasuna daukanak ondore guztietarako erabiltzen du. Eta, dirudienez, ez edukitzea ere bada garrantzitsua, hura ez daukanak (Eusko Jauraritza kasu) ezin dituelako erabaki batzuk gauzatu (autodeterminazioaren aldarrikapena, presoen eskubideak, Estatutua osorik betetzeko galdapena...). Hain zuzen ere, Estatuaren oinarritzko bilbearen eta dauden politika moten itxuraketarako funtsezko kontzeptua delako.

Euskal Herriko herritarren erronka handia ondorengo estrategia hauek guztiak aldi berean eta ondo gauzatzea da:

- herrialdearen -nazioaren- instituzionalizazioa eratu, ezinbestez aldika egin beharrekoa;
- iritzi publiko propioa berrerratu, autoerreferentziatzko gizarte gisa berretsiz -berezko eta berariazko gizartea-;
- hori guztia bide demokratikoak erabiliz egin (konbentzitur, gehiengoak erakarriz,

eta horrek bai komunitatearen baitako loturak, bai gizarte zibilaren euskarriak sustatu beharra dakar) eta, gainera, kontrako giroa jasan, egungo fluxu mediatiko nagusiek nazionalismo periferikoen aurkako diskurtsoak darabiltzate;

- esandakoa lortzeaz batera, bizimodua hobetu eta integrazio kolektiboa errazteko moduko gizarte politika taxutu;
- kultur identitate erkidea aldarrikatu; identitate horrek integraziailea eta azpikomunitate guztien integrazioaren emaitza izan eta behar besteko kultur ekoizpen propioa eduki behar du;
- postmodernitatearen balioekiko bateragarritasunez egin, hau da, banakoen jokabideei arreta berezia eskainiz;
- eta kanporantz irekirik (beste herrialde batzuek mugei esker izan zituzten onurak izan gabe).

Erronka eskerga da. Eta ez dago lasterbiderik (adibidez, borroka armatua).

5. Ezker tradizionalaren mitoak eta auzi nazionalak

Nazionalista ez den ezker historikoaren diskurtsoa⁴ honako erreferentzia hauetan oinarritu izan da tradizioz: nazioartekotasunaren eta nazionalismoaren bateraezintasuna; Estaturik gabeko nazioen

aldetik arrazoi nazionalisten zioz gerta litekeen zatikatze ororen aurka, langileria baturik egotea; nazionalismoak langile klaseen kontzientziatze eta antolaketarako oztopo gisa ikustea; esparru ekonomiko zabalak sozialismoaren eraikuntzarako oinarri egokiagotzat hartzea; alderdi komunisten kasuan, nazionalitateen baitan autodeterminazioa printzipio demokratiko gisa defendatzea eta, erabiltzeko aukera suertatuz gero, beraren adar federaletik, Estatu unitarioaren aldeko apustua egitea, independentismoa kolonia edo erdi-kolonietarako utziz.

Hala ere, ehun urte baino gehiagotan mugimendu nazionalistekin izandako aurkapen eta harremanen bizipenak, diskurtso nazionalisten bilakaerak, subjektu politiko eta sozial berriak azaleratzeak, nazioz gaindiko esparru berriek... antzinako egiak kolokan jartzeko gonbitea egiten dute.

Ziurtasun batzuek ez dute funtzionatzen.

5.1 Nazionalismoa eta internazionalismoa

Nazionalismo eta internazionalismo ez dira berba antitetikoak, maila berean baitaude. Norberaren nazioa eraikitzea eta, aldi berean, beste herrialde batzuei - bereziki haietako herritarrei- elkartasuna eta lankidetzaz helaraztea, gauzagarria izateaz gain, ezkerreko nazionalismoaren tradizioaren eta kolonialismoaren aurkako mugimenduen ezaugarrietakoa ere bada.


4. Marxismo tradizionalak Marxek egitate nazionalari buruz egindako gogoeten zati bat baino ez du jarauntsi, hark Poloniarri eta Irlandari buruz edo etnologiaren ondorioztapenei politikoki aurre egin beharri buruz azalduak irizpenak bazter utzirik.

Sentikortasun berezia ere sumatzen da eskuhartze inperial edo barruko oligarkia menpekoen zioz euren subiranotasun nazionalera lortzeko eragozpenak dituzten beste herrialdeekiko.

5.2 Desberdintasunak onartu

Klase batasuna berezko ondasuna da, baina ez da idealizatu behar, horren lorpenak dakartzan arazoak

ezkutatuz. Arazoa batasun gauzagarriak artikulatzean datza, langile klaseek ikuspegi sozial, ideologiko eta nazionalen dituzten ezberdintasunak aintzat hartuz. Askoz emaitza hobeak dakartza errealitateak onesteak, baztergarritzat estigmatizatzeak baino. Arlo politiko eta sindikalean espazio/antolakuntzazko bi planteamendu egin daitezke. Batetik, batasun espazio hurbilenek⁵ Nazio Estatutik abiatu beharra erabaki daiteke –kritikoki bada ere, onartu egin daitekeena– edo, bestela, bera osatzen duten nazioetako bakoitza har daiteke eremutat, herrien artean eratu nahi den artikulazioaren aurrerapen gisa. Estaturik gabeko nazioen kasuan ezin da ziurtasunez esan eraginkortasuna - batasuna- lehenengo aukera hautatuta hobeto susta daitekeela.



5.3 Espazioak

Egia da espazio ekonomikoak, dagoeneko, nazioz gaindikoak - kontinentalak- direna. Baina horrek ez du ekarri langile klaseen estatuz gaindiko batasuna, eta lorpen sozialak ere ez dira herrialde aurreratuenetatik atzeratuenetara hedatu. Estatuz gaindiko instantzia

politikoak agertzen diren heinean Estatuak ahuldu egiten diren arren, langile klaseak ez dira horregatik indartzen, Estatuan oinarrituriko ideologia nazionalistetan murgildurik.

5.4 Gizakiaren araberako boterea

Dagoeneko, inor gutxik defendatuko du estatu-eremu handiak edo estatuz gaindikoak sozialismoa eratzeko egokiagoak direnik. Ekologismo politikoak, gutxiengo nazionalak, erregionalismoek eta autogestioa bilatzen dutenek espazioen giza izaria aldarrikatzen dute, gestio kolektibo demokratikoa ahalbidetu eta botere metaketa kontrolaezinak galarazteko xedez.

5. Langile klaseen nazioarteko batasuna, berez, ezkerren edo sindikatu subiranoen arteko akordioen bidez gauzatu ohi da. Internazionalismo organikorik ez dago, baina badu eratzeko aukera, globalizazio liberalaren aurkako borrokaren bidez.

5.5 Autodeterminazioa

Ezkerrak abstraktuan onesten die autodeterminazio eskubidea hura aldarrikatzen duten herriei, nahiz eta horren zehaztapenean ez den adostasunik lortzen. Hauxe da egin beharreko galdera: Zer da autodeterminazioa, nazio anitzeko Estatuak -Nazio Estatuak demokratikoa izan behar duelako-, demokrazia sakontzekotan, auzi nazionalak ebazteko duen zeregina ala, horrez gain eta batez ere, komunitate bereizi batek, hala nahi duelako, subjektu politiko subiranoa bihurtzeko duen eskubide kolektiboa?

5.6 Gizartearen eta nazioaren auziak, maila ezberdinetan

“Gizarte konplexuetan” subjektu historiko bakarrak ez dagoenez, aldarrikapen nazionalak eta sozialak arlo ezberdinetan kokatzen dira. Gizarte antolakuntza motak hainbat ardatzen arabera egituraturik daude, hala nola ekoizpen mota (gizarte klaseak), Estatuarekiko harreman komunitarioak (nazioak), genero harremanak (emakume eta gizonak), belaunaldien artekoak, funtzionalak (ikasleak), lurralde mailakoak (hiri eta landa gunek) eta sentikortasun sozial zein politikoetan funtsatuak (ekologismoa, arrazakeriaren aurkako mugimendua, bakezaleak...); eta gizarte antolakuntza mota egituratuak beste subjektu dago. Berez, aldaketa soziala gauzatzeko nagusitasuna alor politikoan jokatzen da, azken instantzian. Horixe da gatazka

nagusien agerpen, aurkapen eta ebazpen gunea eta berori da mugimendu politiko eta sozialen adierazpen esparrua ere. Eta mugimendu horiexek dira gizarte aldaketaren subjektu historikoak. Edonola ere, Estaturik gabeko nazioetan, subjektu komunitarioa ere badago, politikaren alorrera nazionalismoaren eskutik sortu den subjektua, soziabilitatearen oinarrietako bat delarik, bere identitate kultural eta nazionala zaintzen eta, hein batean, gainerako subjektu politiko eta sozialen tokia iragazten duena, zilegitasun soziala ekarriz eta espazio publikoak birbanatuz⁶.

Ezker guztiek ulertu beharko zuketena hori. Historikoki, demokrazia politikoa erradikalizatzearen –herritarrek, subjektu aktibo bihurturik, inplikazio politikoa izatearen- eta hori alor sozialera hedatzearen alde agertu izan dira, ordezkariak esparruaren, bizipen esparruaren eta leku sozialaren arteko dibortzioa saihestu nahian.

Ikuspegi horretatik, subjektu politikoa, komunitate subjektua -nazio bihurtu nahi duen herri bat, Estatu eduki zein ez-badela onartzea langile klaseak edo jatorrizko ezkerak, beren beregi, beraren atal direla esan nahi du, eta horien ataza eraikuntza nazional eta sozialaren aitzindaritzaren bereganatzeko modua aurkitzea da, besteren arazotzat edo demokraziatik egin beharreko aliantza taktiko soiltzat hartu beharrean.

6. Ikuspegi honetatik, auzi nazionala egitate politiko eta kulturala da, ez estalkia, batzuek dioten bezala. Estalkia, izatekotan, gizarte erreferentzietatik ihes egiten duten ideologia nazionalista sinbolisten populismoak jartzen du, edo, beste muturretik, ideologia zentralista/estatalisten aldetik, subjektu komunitarioaren ukapenak.

6. Alderdi nazionala eta alderdi soziala

Auzi nazionalak ez du borroka sindikala lainotzen. Aitzitik, beste izari batzuk eransten dizkio horri –zer autogobernu, lan harremanetarako zer esparru-, klase koherentzia politikaren, eskumenen edo lan negoziazioaren esparrua kuestionatzen ez duten indar politiko eta sozialen koherentzia baino handiagoa, berdina nahiz handiagoa den kezkatu gabe.

Mintzagai hartzen dugunaren arabera –arazoak ala mugimendu esanguratsuak– arrazoizkoa da alderdi “nazionala” eta soziala bereiztea edo, aitzitik, nahastea. a) Funtsezko arazoei eta diskurtsoei buruz mintzatuz gero, zentzuzkoa da alderdi nazionala sozialetik bereiztea; b) bereizketa hori, ordea, ezinezkoa da mugimenduen, horien programen eta oinarri sozialen alorrean.


a) Arazoei erreparatuz gero, ahuldutako kulturei, irain historikoei, eraikuntza kultural eta politikorako oztopoei eta nazio politiko bihurtzeko prozesua gauzatu ezin izan duten nazio kulturalen ezinegonari loturik datoz Europako auzi nazionalak.

Gaur egun, adibidez, globalizazioak dakarren erreferentzi galera eta sakabanaketaren aurrean, Gu komunitarioak, hein batean, kohesioa sustatzen du eta elkartasun zein sakrifizio konpartigarriak sortzen ditu, gutxienezko kultur identitatearen oinarri erkide nahiz imajinatuaren gainean ehunduriko komunitateetan sortua delako, hain zuzen ere, eta beraren arazoak hurbiletik eta

konpontzeko eran tratatzen direlako. Globalizazioaren mehatxuen aurrean, komunitateek hainbat ondore integratzaile ekar dezaketen loturak eratzen dituzte, hala nola: osotasun anizkunarentzat onuragarri diren lankidetzazko erabakiak hartzeko parte-hartze demokratikoa hobeto antolatzea; herritar guztien erantzukizun balioak nabarmenarazteko barne elkartasun kondizioak eratzea eta, komunikabideekin batera, iritzi publikoa sorrarazi edo heldutasunez nahiz erreferentziaz janztea (modernotasunari datzekion balioa baita, Habermasen arabera); edo autoantolakuntza erraztea, esanahi komunitario ahaltsu eta ireki batez, hurbila ondo ezagutzen den neurrian eta orokorra ere ezagutzeko bidea dagoelarik.

Eragile askoren menpean dago aukera hori errealitate bihurtu ahal izatea. Ideologien, oinarri sozialen, gatazken egoera eta eraren eta nazio proiektua formulatzeko moduaren menpe daude arazo politiko nagusi bihurtzeko aukera –gaur egun hemen hala da, eta ez bakarrik Euskadiren kasuan– eta komunitatearen gestioa.

b) Eta hortxe, errealitatearen planoan, nazionalitatearen mugimenduen zati guztien itxuraketan, gurutzatzen dira alderdi nazionalak eta sozialak, eta halaxe izan behar du ezinbestez, ez dagoelako nazionalismo bakarrik eta pertsonak ez direlako euren existentzia ahazteraino mozkortzen nazioaren dimentsio bakarraz. Ez horixe. Gu horretan beraren hegemonia lortzearen borrokatzen diren eskuin, zentro zein ezkerreko ideologiak daude, armatuak nahiz armarik gabekoak (batere



nazionalistak eta oso nazionalistak ez diren herrikideak barne, jakina); bertako klase eta taldeen adierazpen dira eta horien menpean dago herrialde proiektu hori gauzatu ala zapuztea. Hortik ondoriozta daitekeenez, euskal nazionalismoaz baino, euskal nazionalismoez mintzatu beharrean gaude.

7. Euskal nazioa berriro taxutu

Euskal Herria (Pirinioen alde batean eta bestean dauden euskal lurralde guztiak) errealitate historiko eta kulturala da, baina ez da errealitate politikoa, nahiz eta hori ere, geldiro eta hein ezberdinetan, eratuz doan. Beraz, oso errealitate asimetrikoetan oinarrituriko eraikuntza proiektua da. Nafarroan Euskal Herriko biztanle sentitzen diren nafarren eta, euskal herritar barik, espainiar sentitzen diren nafarren arteko identitate zatiketa dago. Guztiek

nafartasuna dute erkide. Iparraldean, bestalde, ez da euskal izaera kuestionatzen, baina herritar gehien-gehienek patriotismo frantziarrarekin konpartitzen dute sentimendu hori eta gehiengoak ez du, inola ere, nazio kontzientziarik.

Nazio kultural izatetik nazio politiko izaterako jauzia (Estaturik gabe, baina Administrazio nabarmen bat duelarik) Euskal Autonomia Erkidegoak egin du soilik, hau da, zazpi lurraldeetako hiruk, nahiz eta euskal biztanleriaren %75 hartzen duten. Argi dago, legitimazio eta uste demokratiko sendoen garai honetan, euskal lurralde historiko kultural guztietarako jauzia ez dela lortuko, lurraldeetako bakoitzean gehiengoan aldeotasuna lortu ezean. Ez dago errealitate politikorik, herritarren aldetik behar besteko borondaterik ez badago. Izan ere, Euskal Herri kontzeptu politiko eta nazionala (ez kulturala) eraiki behar dugu, aurrez aurre beste modelo batzuk izanik eta barne zatiketa soziala egon arren, eta horretarako abiapuntua Gizarte kontzeptua besterik ezin da izan, herritar gehienek aldeotasunaz, hots, demokraziarekiko begirunez. Horrela ez egiteak zilegitasuna kentzen dio derrigorrezko konbentzimendu prozesua saihestu nahi duenari –horixe da Quebecen defendatzen den subiranotasun demokratikoa- eta kontrako erreakzioa eragiten du.

Euskadin *demosak* kudeatu behar du *etnosa*, betiere identitatea norberak nahi bezala bizitzeko eskubidea bermatzen den bitartean. Horrela planteaturik, ez dira

printzipio bateraezinak kolektibitate bat, aldi berean, gizarte –integraturik, justizian eta demokrazian ondo bizitzeko- eta komunitate –kolektiboki proiektatutako eta onartutako identitate garapenean oinarrituz etorkizuna jorrazteko- izan dadin, elkarren baldintza baizik. Hortaz, nazionalismo erromantiko eta

etnokratikoen garaia (XIX. mendea) iraganda, gizabidezko nazionalismo eta eduki sozialeko komunitarismo irekien garaian gaude (XXI. mendea); horiek behar bezala bideratu behar dituzte bai benetako elebitasuneranzko kultur normalkuntza, epe luzera, bai nazionalitateetako herritarren erabaki eskubidea. □

Bibliografía

- CASTELLS, M. La era de la información.
I eta II bol. Madril. Alianza. 1998
- FUSI J.P. España. La evolución de la identidad nacional.
Temas de Hoy. Madril. 2000
- GALLISSOT R. Nación y nacionalidad en los debates del movimiento obrero,
"Historia del Marxismo" liburuan.
VI bol. Bruguera. Bartzelona. 1981
- HABERMAS, J. Identidades nacionales y postnacionales.
Tecnos. 1989
- LETAMENDIA, F. Juego de espejos. Conflictos nacionales centro/periferia.
Trotta. Madril. 1997
- LLOBERA J.R. El dios de la modernidad.
El desarrollo del nacionalismo en Europa Occidental.
Anagrama. Bartzelona. 1994
- MILLER, David Sobre la nacionalidad.
Paidós. Bartzelona. 1997
- NUSSBAUM, M.C. *et al.* Los límites del patriotismo.
Paidós. Bartzelona. 1999
- SMITH, A.D. National identity.
Penguin. London. 1991
- TAYLOR, C. *et al.* Multiculturalism.
Princeton University Press. 1994
- Federalismo y nacionalismo en Canadá.
Gakoa. Donostia. 1999
- THOMPSON J. B. Ideology and Modern Culture.
Polity. London. 1990
- ZALLO R. Euskadi o la Segunda Transición.
Erein. Donostia. 1997